

**SUMARIOA**

Urtebete gerrari bizkarra ematen

**II-III**

Ipar Irlandaren erradiografia

**IV-V**

Ipar Irlandako alderdi nagusietako liderrekin elkarrizketak

**VI-VII**

Bake prozesuaren hamaikakoa

**VIII**

# Urtebete elkarrizketen zain

■ Luzea izango da, derrigor, Irlandako bake prozesua. Datorren ostegunean urtebete egingo du IRAK su-etena iragarri zuela, eta oraindik bertako alderdi politikoak ez dira eseri Ipar Irlandaren etorkizunari buruz hitz egiten hasteko. Armak isiltzeko baldintza beteta, beste baldintza bat jarri zuen Londresek: Sinn Feinek negoziaketetan parte hartu aurretik IRA armak entregatzen hastea. Mugimendu errepublikarrak, espero bezala, horretarako prest ez dagoela adierazi du.

Urtebete honetan une larriak pasatu ditu bake prozesuak, eta su-etena urteurrenean bertan apur zitekeela ere zabaldu zen. Azken hilabeteetan urrats batzuk eman dira, ordea, eta elkarrizketarako giroa hobetu egin da: Adamsek eta Mayhewk hainbat bilera 'pribatu' egin dituzte eta presoak zigorraren erdia beteta kalea ateratzea erabaki du Londresek. Gerrarik gabeko urtearen ondoren, behin-betiko bakea eraikitzeko elkarrizketak noiz hasi zain daude orain irlandarrak. ■



■ Urtebeteko lasaitasun giroaren eta bakearen lurrin gozoaren usnatzeko aukera eman die Belfasti eta Ipar Irlandako bazter guztiei IRAk lehenik eta gero talde armatu lealitek iaz aldarrikatutako ekintza armatuen su-etenak. Prozesu politikoak aurrerapauso handirik izan ez duen arren, Irlandako iparreko sei konderriek ez dute

denbora alferrik galdu eta aldaketa sakonak izan dituzte. Herrien itxura izugarri aldatu da: gerra makineria eta tresneria gehiena edo britainiarren koartelen barruan gorde da edo desegin dute, eta umek ez dituzte soldadu britainiarrak kaleetatik zehar patruilatzen ikusi, azken hoge urteotan egin izan duten bezala. ■

## Urtebete gerrari bizkarra ematen

Hori egia izanik, hain borroka eta gerra luzea eta latza eragin zuten arrazoiek badira eta, ondorioz, enfrentamendu ugari izan dira bi komunitateetako jendearen artean.

Armadaen helikopteroen burrunbadak itzartzen ditu oraindik Belfast mendebaldeko *ghetto* katolikoko bizilagunak. Azken urtean Ipar Irlandan bakea nagusitu den arren, britainiarrek Irlandako iparreko sei konderrietan segitzen dutela eta azken 25 urteotan hiru mila hildako eta 30.000 zauritu eragin dituen borroka ez dela bukatu etengabe gogoratzen dute helikopteroek.

«Soldadu britainiarrak, RUC polizia 'protestantearen' patruilak eta Armadaren koartelak eta dorreak kendu eta Britainia Handira bidaltzen dituztenean historia liburuetako kontua izango da egun Irlandan bizi den gatazka». Katolikoak eta protestanteak irala honetan elkarrekin bizitzeko modua hitzartzea britainiarrak joandakoan errazagoa izango dela uste du Connor O'Neilek.

Belfast erdialdean dagoen liburudenda batean egin du Ian Connorrek azken bi urteotan. Lankide gehienak jatorri protestanteak diren arren, 25 urteko mutil honek ez du bere jatorria eta bere izen irlandarra ezkatatu beharrik. Etxera itzultzen denean gauzak aldatu egiten dira eta segurtasun neurri batzuk hartu behar izaten ditu. Belfastko hego-mendebaldeko Dunmurry auzoan bizi da Connor, protestantez inguratutik. «Bake prozesuarekin lasaia bizi naiz eta jadanik ez dut neure burua arriskuan ikusten. Lehen beldurra sentitzen nuen lanetik etxera itzultzerakoan edo auzotik zehar ibiltzerakoan. Paramilitar lealitek jende asko hil dute bakarrik jatorri katolikoa izateagatik».


Azken urtean armak isildu egin dira eta jendeak gustoa hartu dio bakean bizitzeari, baina bi komunitateetako kideen arteko enfrentamendurik ez da falda izan denbora honetan. Bakea gehiagi dastatzeko aukerarik izan ez dutenak Ormean auzo mistoko bizilagunak izan dira.

Apirilean martxen denboraldia hasi zenetik zortzi aldiz saiatu dira bertako ordena orangistako kideak auzoko alde katolikotik zehar desfilatzen. Zortzietan auzotar errepublikarrak aurkitu dituzte, bidea moztu nahian, eta Poliziak izugarriko hedaketa eta kargak egin ditu bertaldean arteko enfrentamenduak deusezteko. Hilaren hasieran izan zen azkenengo saioa eta Poliziak



Neska errepublikar bat Irlandar banderarekin, Sinn Fein desfile batean Belfasten.

H.UNZUETA



Ordena orangistako kideek Belfasten apirilean egin zuten martxa.

H.UNZUETA

martxa orangistari bidea zabaldu ostean, borroka gogorak izan ziren manifestatzaile errepublikarrek eta Poliziaren artean.

Kultura eta ohitura unionistak defenditu eta irauaraztea du xedetaz ordena orangistak. Ordena erlijiosoa izan arren, eragin handia du alderdi politiko unionistetan, batez ere Ipar Irlandan nagusi den Ulsterko Alderdi Unionistan (UUP). Ehun mila kide ditu Ipar Irlandan eta atzerriko hamahiru herrialdetan ere baditu zenbait egoitza eta bazkide.

Martxa orangisten eta errepublikarrek egindako apurren birtartzet kanalizatu da bi komuni-

Azken urtean enfrentamendu ugari izan da komunitate katolikoaren eta protestantearen artean.

tateek barru-barruan elkarri dioten gorrotoa eta haien inguruan izan dira tentsio une handienak azken urtean zehar.

Baina Falls Road auzoan 17 urteko neska katoliko bat hiltzeagatik Gobernu britainiarrak Lee Clegg soldadua kartzelan hiru urte eman ondoren kaleratzea erabaki zuenean izan ziren gertaerarik biolentoenak. Utzailaren 4an, John Major lehen ministro britainiarrak Alderdi Kontserbadoreko lidergoari eutsi zion egunaren bezperan askatu zuten Clegg. Belfast eta oro har Ipar Irlandako herri nagusiek su-etenaren aurreko itxura hartu zuten: manifestazioak, suzko barrika-

dak (150 auto eta kamioi erre-tuzten guztira), molotov koktelak, Poliziaren eta burua estalita zeramatzen gazte andanan arteko enfrentamenduak, helikopteroak behe-behetik guztia grabatzen...

Egunean zehar Belfastko mendebaldean izan ziren istiluak eta barrikadak jasotzen ibili zen Tom Lynch aktibista errepublikarra, haserre biziz. «Britainiarraren jokabidea eta asmoak zeintzun diren garbi geratu da Lee Clegg hiltzailea askatzeko erabaki honekin. Irlandako historian zehar maiz egin izan duten bezala, orain ere britainiarrek neurri desberdinak erabili dituzte gauza batzuk eta besteak epaitzeko: lege bat beraientzat eta beste bat Irlandako nazionalistentzat».

Lee Clegg soldadu britainiarra askatu zuteneko egun luzea eta istiluz beterikoa atzean geratu da eta bake prozesua, oztopoak oztopo, aurrera doa, astiro samar hori bai, herri honi etorkizun itxaropentsua eraikitzeko ahaleginean. Kaleko jendea, berriz, ez dabil geldiro eta bake prozesuak eta IRaren su-etenak eman dizkion aukera berriek ihes egin baino lehen aprobetxatzeko azkar mugitzen ari da, bake prozesua bera baino askoz azkarrago.

Belfasten itxura egunez egun aldatzen ari da. Gerrako irudia izan ondoren, herri normalizatua izan nahi duen itxura hartu du: martxoetik ez dago kalean soldadu britainiarrak patruilatzen eta koartelatan sartuta daude (Ipar Irlanda guztian 135 instalazio militar daude), eraikuntza publikoak eta zenbaiten etxebizitza pribatuak inguratzen zituzten arantzaz beteriko burdin-hesi gehienak kendu dituzte; auzo protestanteak eta katolikoak banatzen dituzten aluminiozko ateak zabalik daude egun osoan, gautan eta asteburuetan izan ezik.

Ezin da pausorik eman gauzak erabat aldatu direla errepertu gabe, baita taberna barruetan ere. Falls Road IRAk kide gehiago lortzen duen auzo errepublikararen bihotzean dago 'The Rock' taberna. Duela urte t'erdia, larunbat gauetz, taberna jendez beterik zegoela lehergailu bat jaurti zuten barrura talde paramilitar lealitateko bi kidek. Zauritu ugari egon bazen ere, ez zen inor hil. Tabernan zein sartzen den kontrolatzeko kamerek (Belfast eta herri nagusietako taberna guztietan daude), burdinazko ateak eta leiho blindatuek ez zuten orduan ezertarako balio izan.



Igandea, 1995eko abuztuaren 27a - Egunkaria

Hala ere, segurtasuna bermatzeko ezinbesteko neurriak izan dira tabernetan eta elkartetan. Su-etenarekin, berriz, kamerak itzalita daude eta txirrina jo beharrik ez dago barrura sartzeko.

Turismoak ere nabaritu ditu bake prozesuaren ondorioak. Azken urtean % 18ko gorakada izan du iturri ofizialek emandako datuen arabera.

Falls Roadetik bost minutura dago Shankill auzo protestante ezaguna. Hor bizi diren 20.000 herritarrek Fallseko jendearen arazo sozial eta ekonomiko berberak jasaten dituzte: langabetu kopuru handia, alkoholismo eta droga-menpekotasun handia, iturri ekonomiko urriak... Baina naziotasunari dagokionez ikuspuntu kontrajarriak dituzte. Berrehun metroko aldeak banatzen duena, politikoki kilometrotako distantziak banatzen du.

Hurbiltasun fisikoaren eta urruntasun politikoaren nahasketak elkarrenganako gorrotoa sortzen du, bake prozesuak berak ere ezin bigundu duen gorrotoa alegia. Azken urteotan izandako biolentzia gorrotoaren adierazpen latzena eta ia saihestezina da. «Borrokatzen eta bata bestearen gain hiltzen ari garenek poberenak eta antzeko arazoak ditugun jendea gara eta hori da herri honen tragediarik handiena», Billy Hutchinson Alderdi Unionista Progresistako (PUP) kidearen hitzek komunitate unionistako jende askok irlandar nazionalistenganakoa duten sentimendu kontrastankorra adierazten dute. Hutchinsonek gizarte sozialista ikusi nahi luke Ipar Irlandan, Gerry Adams bezala, baina Britainia Handiar lotuta irautearen aldekoa izateak bereizten du Sinn Feineko buruzagiegandik.

Arnak hartutakoa da Hutchinson, politika kontuetan hasi baino lehen. PUPen pentsamendu politikoa duen Ulster Volunteer Force talde armatuan hain zuzen ere. Talde horrez gain, Ulster Freedom Fighters (UFF) ere IRAri aurre egiten saiatzen da. Talde honen alderdiak (Ulsterko Alderdi Demokratikoa, UDP) ere Shankillen du egoitza nagusia, baina ez du sozialismoaren helburu espreski adierazten, Ulsterren independentzia baizik. Gary McMichael zuzentzen duen alderdiak egitura politiko eta konstituzio propioa eskatzen die britainiarrei Ipar Irlandarako, eta baita parlamentua, polizia eta armada propioak ere.

Shankill eta Belfast ekialdeko auzoetatik ateratzen dira UVF eta UFF taldeetako kideak. IRAren mehatxutik defenditu eta hark eragindako hildako bakoitzari erantzuna ematea da lealisten helburu nagusia. Horretaz gain, beren kontrolpean dauden

auzoetan segurtasuna eta ordena zaintzeko polizia klandestinoaren lana betetzen dute bai talde lealitek bai IRAk. «RUC ez da gure polizia», dio Tom Lynch IRAko kideak «eta ez du batera lanik egiten gure auzoetan; ondorioz, norbaitek bete behar du hutsunea eta geuk egiten dugun lan hori, jendeak hala eskatuta».

Tomek dioten bezala, auzo hauetako jende askok begirunez ikusten du bai IRAk bai talde lealitek, bakoitzak bere auzoetan, droga saltzaileen, lapurren eta oro har gizartearen aurka dagoen jende guztiaren aurka egiten duten lana. Kaleak «garbitzeko» punishment bating izenarekin ezagutzen den zigorra ematen zaie «arazoan iturri direnei». Egurrezko edo burdinaz-

Lee Clegg soldadu britainiarraren kale-irratzeak arriskuan jarri zuen bake prozesua.

Hurbiltasun fisikoaren eta urruntasun politikoaren nahasketak sortzen du gorrotoa.



Lee Clegg askatzeak sortutako istiluak izan dira aurtengo larrienak. H.UNZUETA



Paisley, orangisten martxak aurrera egin zezan poliziekin negoziatzen. REUTERS

ko batekin bi belaunak txikitzean datza komunitatearen aurrean eredu gisa jarri nahi den zigor mota hau. Su-etenetik 180 zigor salatu dira Poliziaren arabera, baina inork ez ditu bere gain hartu, bake prozesuarentzat kaltegarria izango bailitzateke IRAk edo talde lealitek ekintzak egiten segitzen dutela aitortzea.

Bere gain hartu ala ez, IRA eta talde armatu lealitek hor segitzeak du benetan garrantzia, Belfasteko mendebaldean egun osoan zehar hegan dabilen helikoptero britainiarrak bezala.

Su-etenaren dagoenetik IRAk eta talde lealitek 180 zigor eman dituzte euren komunitate barnean.

BAKE PROZESUAREN KORAPILOAK

● Alderdien arteko elkarriketak



Bake prozesua abian jarri eta bi aldeetako talde armatuak su-etenaren iragarri zutenetik, alderdi guztien arteko elkarriketa politikoak hasia izan da prozesua bultzatzen dutenen helburua. «Indarkeriaren erabileraren bukaera iraunkorra» lortu eta «bide baketsuak baino ez erabiltzeko konpromezua» hartuz gero, alderdi guztiek negoziaketa politikoetan parte hartzeko aukera izango zutela agindu zuten Londresek Dublinek, Downing Streeteko adierazpenean. Orain, ordea, IRA armak entregatzen hasi aurretik Sinn Feinek ezin duela elkarriketetan parte hartu dio Londresek. Orain arte, Sinn Feinek eta talde paramilitar lealisten adar politikoekin elkarriketa esploratorioak izan ditu Londresek, Michael Ancram ministroaren eskutik. Alderdi lealitek (PUP eta UDP) elkarriketa esploratorioak egiten segitzen du, baina Sinn Feinek hiru bilera egin ondoren elkarriketa esploratorio gehiagotan ez zuela parte hartuko adierazi zuen, elkarriketa mamitsuetan sartzeko garaia zelakoan. Orduak, bi bilera «pribatu» gutxienez egin dituzte Mayhewk eta Ancramek Adams eta McGuinnessekin. Alderdi unionista nagusiek, James Molyneuxen UUPk (Ulsterko Alderdi Unionista) eta Ian Paisleyren DUPek (Alderdi Unionista Demokratikoa), elkarriketetan ez dutela parte hartuko ohartarazi dute. Paisleyk IRA militarikisuntitu beste biderik ez du ikusten, eta inoiz ez luke Sinn Feinek elkarriketa politikoetan parte hartuko. Molyneuxen alderdia, berriz, IRAk armak entregatuz gero Sinn Feinek hitz egiteko prest gongo litzateke.

● Armen dekomisioa



Sinn Feinek elkarriketetan parte hartu ahal izateko, IRAk armen dekomisioaren gaian «keinu esanguratsua» egitea derrigorra dela dio Londreseko Gobernuak. Su-etenaren aurreko elkarriketa sekretuetan horrelakorik ez zela aipatu ere egin erantzun du Sinn Feinek, eta Albert Reynolds orduko lehen ministro irlandarrak egiaztatu egin du errepublikarrek esana. Sinn Fein ez dago prest IRAri errendizioa sinbolizatu lukeen keinurik eskatzeko, eta John Hume, Reynoldsek bezala, aurrebaldintza hori kentzeko eskatu dio Londresi. Clintonek eta Brutonek, armen dekomisioaren gaian jarrera argirik agertu gabe, elkarriketa berehala hasia nahi dutela adierazi dute. Dekomisioaren gaiari irtenbidea emateko nazioarteko batzordea osatzea hitzartu dute Londresek eta Dublinek, oraindik osatu ez den arren.

● Presoak




Espetxean 1.300 preso baino gehiago daude gatazka politikoaren ondorioz, 644 errepublikar eta 690 lealista. Oraino, Hego Irlandan espetxeraturako presoek baino ez dute nabaritu egoera politiko berriaren onura. Su-etenaren aurretik 56 preso errepublikar zeuden Dublingo Portlaoise kartzelan, eta 32 zigorra bete baino lehen askatu ditu Dublingo Gobernuak azken hamabi hilabeteotan. Londresek su-etenaren urteurrenaren atarian iragarri du aspaldian espero zen neurria: kartzela zigorraren bi heren beharrezan zigorren erdia betetzeko nahikoa izango da hemendik aurrera. Neurri honekin, datozen hamabi hilabeteotan berrehun preso kaleratuko direla esan zuen herenegun Mayhewk, baina askoz gutxiago direla erantzun diote errepublikarrek. Erabaki honek bake prozesuari bultzada txiki bat emango badio ere, kontuan izan behar da neurri honen orain bost urteko egoerara itzuli baino ez direla egin: 1989. urtea arte kartzela zigorraren erdia beteta iritelen ziren kalera preso guztiak, baina urte horretan talde armatuek kanpaina gogorra egin zutela-eta, zigorraren bi heren betearaztea erabaki zuen Gobernuak. Britainia Handiko espetxetan preso dauden irlandarrak Ipar Irlandako kartzelara eramatea izan da mugimendu errepublikararen beste eskaeretakoa bat, baina Londresek gutxi batzuk baino ez ditu eraman orain arte. Londresek, herenegun arte talde paramilitarretako presoen aldeko neurriak ez hartzearaz gain, Belfasteko neska bat hiltzeagatik betiko kartzela zigorra zuen soldadu britainiar bat askatzea erabaki zuen joan den hilcan, soldaduak kartzelan hiru urte baino egin ez zituen.

**BIZTANERIA**

IPAR IRLANDA  
1.577.638

HEGO IRLANDA  
3.352.401



**EGITURA POLITIKOA**

Goberna


Erreuma Batuko Gobernuak agintu zuten du (par Irlandan, Lehen ministroak (John Hume) lehenbiziko du zuzeneko par irlandiar Estatu Batuetan (Patrick Mahony), eta horiek bere Gobernu (31 ministro eta 11 Estatu idokatuak). Beraz, Alderdi Kontseleak du agintu par irlandan, baina aldira seigarren aldira den erren.

**Parlamentariak**

Londresko Simoneo Parlamentu desegun eta agintu zuzena ezan zutenik (1972), par irlandia ez du berretzi legezikiarrik. Garu egun, Erreuma Batuko Legebiltzarra 651 parlamentariarik 17 aukeratu den par Irlandan, Erreuma Batuko 81 errepresentatzailek 3 aukeratu dira par Irlandan.

**GAIZAKIA**

Hildakok: 3.172 (1968-1994)



**BAKE PROZESUA**

1984

1984: Alderdiak 31: IRA, su-etena aldatuak. Alderdiak 31: IRA, su-etena aldatuak. Alderdiak 31: IRA, su-etena aldatuak.

1985

1985: Alderdiak 17: Suedia birlanatuak. Alderdiak 17: Suedia birlanatuak. Alderdiak 17: Suedia birlanatuak.

1986

1986: Alderdiak 16: Anaren eta Anaren. Alderdiak 16: Anaren eta Anaren. Alderdiak 16: Anaren eta Anaren.

1987

1987: Alderdiak 15: Suedia birlanatuak. Alderdiak 15: Suedia birlanatuak. Alderdiak 15: Suedia birlanatuak.

1988

1988: Alderdiak 14: Anaren eta Anaren. Alderdiak 14: Anaren eta Anaren. Alderdiak 14: Anaren eta Anaren.

1989

1989: Alderdiak 13: IRA, su-etena aldatuak. Alderdiak 13: IRA, su-etena aldatuak. Alderdiak 13: IRA, su-etena aldatuak.

1990

1990: Alderdiak 12: Suedia birlanatuak. Alderdiak 12: Suedia birlanatuak. Alderdiak 12: Suedia birlanatuak.

**GAIZKARENAREN ARROA**

1989

1989: Alderdiak 12: Suedia birlanatuak. Alderdiak 12: Suedia birlanatuak. Alderdiak 12: Suedia birlanatuak.

1990

1990: Alderdiak 11: Suedia birlanatuak. Alderdiak 11: Suedia birlanatuak. Alderdiak 11: Suedia birlanatuak.

1991

1991: Alderdiak 10: Suedia birlanatuak. Alderdiak 10: Suedia birlanatuak. Alderdiak 10: Suedia birlanatuak.

1992

1992: Alderdiak 9: Suedia birlanatuak. Alderdiak 9: Suedia birlanatuak. Alderdiak 9: Suedia birlanatuak.

1993

1993: Alderdiak 8: Suedia birlanatuak. Alderdiak 8: Suedia birlanatuak. Alderdiak 8: Suedia birlanatuak.

1994

1994: Alderdiak 7: Suedia birlanatuak. Alderdiak 7: Suedia birlanatuak. Alderdiak 7: Suedia birlanatuak.

1995

1995: Alderdiak 6: Suedia birlanatuak. Alderdiak 6: Suedia birlanatuak. Alderdiak 6: Suedia birlanatuak.

**BOZKETAK**

1992ko hauteskunde nagusialak



1993ko udal hauteskundeak



1992ko hauteskunde europarrak




**GAIZAKIA**

Erreuma Batuko Ogasun Indarrak (1993ko abenduan)



(1) 1995ean zehar 800 gutxiago





## Michael McGimpsey

(UUP)

# «Erreferenduma egiteak izan beharko luke aurreneko urratsa»

● Michael McGimpsey Ipar Irlandako alderdi politikoa nagusiko zuzendaritzako kide da. Duela 30 urte, 16 zlueta, egin zen Ulsterko Alderdi Unionistako (UUP) kide, eta Belfasteko Udaleko zinegotzia da 1993. urtetik. Alderdia barruko Talde Unionista Laboristako liderra da, UUP barruko lerro ezkeriarreneko bozeramallea da beraz.

**EGUNKARIA.**— IRAk su-etena iragarri zuenetik hamabi hilabete igaro dira. Urte ona izan al da ikuspegi politikotik?

**MICHAEL MCGIMPSEY.**— Gure alderdiak ongi-etorria eman zien bi aldeek iragarri zituzten su-etenei, eta orain, hainbeste hilabeteren ondoren, erakunde terroristak berriro indarkaria erabiltzen-hastea zaila dela ikusten dugu. Hau oso positiboa da. Orain, su-etenen ondoren prozesu politikoan

gertatzen ari denarekin ez gaude oso pozik. Ipar Irlandaren etorkizuna erabakitzeke alderdien arteko elkarrizketak etenda daude aspaldian, eta badirudi Gobernuaren asmoa IRA eta talde paramilitar jealistasak mahai horretara eramatea dela. Gu ez gaude prest talde horiekin hitz egiteko armak entregatzen ez dituzten bitartean.

**EGUNKARIA.**— Su-etena iragarri dituztenek aldaketa politikoak eskatzen dituzte. Zein aldaketa onartzeko prest dago UUP?

**MCGIMPSEY.**— Muga da hemen arazo, nagusia: Dublinen agindupean edo Londresen agindu-



Michael McGimpsey.

HUMBERTO UNZUETA

pean egon behar duen Ipar Irlandak. Erantzuna garbia da: Ipar Irlandako herritarrek erabaki behar dute etorkizuna, zein egitura izan nahi duten hemen eta zeinen agindupean. Eta gehiago zabalak Erresuma Batuan segitu nahi du. Horixe bera zehazten zuen Downing Streeteko adierazpenak, herri honek autodeterminazioaren bitartez bere etorkizuna erabaki behar duela. Ez dugu ulertzen zergatik ez den egin erreferendumi Ipar Irlandako gehiengoak erabaki dezan zein izatera politiko izan nahi duen.

**EGUNKARIA.**— Armen dekomisoaren arazoa gaindituz gero,

UUP prest egongo al litzateke eztabaidagai nagusia John Majorrek eta John Brutonek sinatutako Oinarritzko Agiria izango lukeen elkarrizketetan parte hartzeko?

**MCGIMPSEY.**— IRaren armen arazoa konpondua balego, IRAk armarik ez balu, orduan ez genuke arazorik izango beste alderdiekin bezala alderdi errepublikarrekin ere hitz egiteko, alderdi konstituzionala izango bailitzateke. Beste kontua da Oinarritzko Agiriak izan behar ote duen Ipar Irlandaren etorkizuna erabakitzeke elkarrizketen oinarria. Major-Bruton Agiriak zerikusi gutxi du Ipar Irlandaren etorkizunarekin. Erresuma Batuen parte izaten segitu nahi dugun erabakita, Ipar Irlanda, Erresuma Batuen zati gisa, nola egituratu nahi dugun eztabaidatzea litzateke hurrengo urratsa. Britainia Handiko eta Irlandako Gobernuak egindako Oinarritzko Agiriaren ikuspegia ez da hori, eta ez du heritar gehienek nahi dutenarekin zerikusirik.

**EGUNKARIA.**— Zein dira zuen alderdiaren proposamenak Ipar Irlandan bake iraunkorra lortzeko bidean?

**MCGIMPSEY.**— Londreen agindupean, antolatu behar dugula uste dugu unionistok, baina Dublinen agintea nahi dute nazionalistek. Bi aurkako ikuspegi dauzkagunez, adostasuna Belfasten aurki dezakegula uste dugu. Izan ere, Jehen izandako elkarrizketetan DUP, Alliance, SDLP eta gure alderdiak akordioa lortu genuen—gero Humek atzera egin zuen arren—, eta eredu zera zen: era proportzionala aukeratuak 85 parlamentario Asanblak izango genuke Belfasten; eta Gobernu Asanblako proportzioen arabera osatuko litzateke. Humeren alderdiak izan zen azkenean atzera egin zuena ez gu.

## Alex Atwood

(SDLP)

# «Irlandako jendeak autodeterminaziorako eskubidea du»

● John Hume SDLP alderdi sozialdemokrata nazionalistako presidentearen alderdikide gogokoena da Alex Atwood gaztea. Denbora laburrean gaitasun politikoa nabaria erakutsi du Atwoodek, eta azken bi urteetan Belfasteko Udalean bere alderdiak dituen bost zinegotzietako bat da.



Alex Atwood.

HUMBERTO UNZUETA

**EGUNKARIA.**— Zein da zure balorazioa urtea bete duen IRaren su-etenez eta bake prozesuaz?

**ALEX ATWOOD.**— Azken hamabi hilabeteotan gure herriko kaleetan ez da biolentziarik ikusi, eta hori da gauzarik garrantzitsuenak. Biolentziak ez du inoiz justifikaziorik izan herri honetan, ez iraganean, ez orain; ez etorkizunean. Londresek bake prozesuan izan duen jarrerak tentsioa eta urduritasuna sortu du talde paramilitarren artean eta arriskuan

jarri du prozesua bera.

**EGUNKARIA.**— Azken asteetan komentatu den bezala, su-etena apurtzeko arriskurik ikusten al duzu?

**ATWOOD.**— Britainia Handiko Gobernuaren jarrera egokia izan ez den arren, bai errepublikarrek bai lealisten bake prozesuarekin erabateko konprometua dutela uste dut, eta ez dituela orain bizkarra emango. Gobernu britainiarrek ez du agenda argirik bake prozesu honetan eta agenda osatzea funtsezkoa da prozesuak

## Peter Robinson

(DUP)



Peter Robinson.

H. UNZUETA

● Ian Paisley artzain protestantearen Alderdi Unionista Demokratikoko (DUP) bigarrena da Peter Robinson. Orain 46 urte Belfast ekialdean jaioa, Westminsterren parlamentari da 1979. urtetik. IRAk adiskide bat hil ziolako sartu zen politikagintzan. Paisley erretriratzat denaen alderdiko lidergoa berak hartuko duela segurutzat jotzen da.

**EGUNKARIA.**— Azken hamabi hilabeteotan egoera politikoak onera ala okerrera egin du?

**ROBINSON.**— Egoera politikoa ez da hobea inolaz ere. IRAk su-etena ez zuen deitu pertsonak hiltzea gaizki dagoela erabaki zuelako, baizik eta su-etenen bitartez Gobernuari kontzesio gehiago aterako dizkiola uste duelako. Eta ikusten badu berriro indarkaria erabiltzeko mesede egingo diola, indarkaria erabiltzen hasiko da IRA.

**EGUNKARIA.**— Alderdien arteko elkarrizketak antolatzeke oztopo nagusietako bat unionisten parte

# «IRA errenditzea da irtenbide bakarra»

hartzeko prestutasun eza dela dio Londresek.

**ROBINSON.**— Gobernuak prest dago atzera egin eta alderdi guztien arteko elkarrizketak orain deitzeko, IRA elkarrizketetara eramateko. Ez zaie axola unionistok zer diogun, gehiengoak garen arren. Berdin dit nire alderdiak botoak galtzen baditu ere, baina ni ez naiz IRArekin mahai berean eseriko.

**EGUNKARIA.**— Bake prozesu guztietan alde guztiek zerbaitean amore behar izaten dute. Zertan amore emateko prest zaudete unionistak?

**ROBINSON.**— Azken urteotan kontzesio guztiak komunitate unionistak egin ditu. Guztiak. Garai batean Ipar Irlandak bere Gobernuaren zuten. Orain, eztauka-gu ez Gobernuak ez Parlamenturik, baztertuta gaude; inork ez ditu gure iritzia entzuten, Gobernuak gutxiengo terroristari egiten dio jaramon... Ez zaigu ezer geratzen emateko!

**EGUNKARIA.**— Zein irizki duzu EEBB, Irlanda eta Erresuma Batuko gobernuen jokoeraz?

**ROBINSON.**— Amerikarrek inguruko arazo guztietan euren sudurra sartu eta euren politika munduko herrialde guztietan inposatu nahi dute, baina hemen ez daukate zer esanik. Irlandako Errepublikak ere ez du gurekin zerikusirik. Ipar Irlanda Erresuma Batuko parte eta, beraz, Erresuma Batuko arazoa da.

**EGUNKARIA.**— Zein etorkizun aurrikusten duzu?

**ROBINSON.**— Ezin naiz baikor izan. IRAk berriro armak hartzen ez baditu Gobernuaren errenditu egin delako izango da. Eta, bestalde, Gobernuaren errenditzen ez bada IRAk indarkaria erabiliko du berriro. IRA errenditzea eta armak Erreginarekin indar armatuak entregatzea da irtenbide bakarra.

Hauteskundeak emaitzak onartzea da bidea. Ipar Irlandako herriaren eskuetan utzi behar da etorkizuna erabakitzeke ahalmena. Lehenengo eta behin, jendeak adierazi du behin eta berriro Erresuma Batuko parte izan nahi duela. Proibentzia honetan bi aukera daude: arau demokratikoen errespetua edo erabateko gerra zibila. Aukera dezatela zer nahi duten.



aurrera egin dezan. Akordio Anglo-Irlandarra edo Downing Street Deklarazioa sinatzean erakutsi zuen ausardia eta sendotasunarekin jardun behar luke beti John Majorrek. Bake prozesuaren erritmoa geldo samarra izan da gobernu britainiarrek jarritako eragozpenak direla medio, batez ere presoen, garapen ekonomikoaren eta lege antiterroristaren gaiak dagokienez.

**EGUNKARIA.**— Bake prozesua geldituta, estankatuta, dago une honetan. Nork eman behar duela uste duzu hurrengo urratsa?

**ATWOOD.**— Gobernu britainiarri eta irlandarrari dagokie bake prozesua egungo egoera latz eta kezagarriatik atera eta bultzatzea. Bake prozesuak izan dituen aurrerapauso handienak bi gobernuen erabaki eta ekintzen ondorioz etorri dira. Presoen gaiari buruz eta armen dekomisoari buruzko gaiak alderdi guztien arteko elkarriketetan negoziatu behar dira. Bakarrik elkarriketaren bideetik lor daiteke bake akordioa. Dekomisoa helburua izan behar luke Gobernu britainiarrentzat eta ez elkarriketarik hasia eta aurrerabaldintza.

**EGUNKARIA.**— Zein da SDLPren jarrera Sinn Fein eta IRArekin?

**ATWOOD.**— Azken 25 urteotako biolentziarako ez dago inolako justifikaziorik. Irlandako jendeak eta gure alderdiak behin eta berriro eskatu dio IRARI armak utz ditzan. Baina, era berean, argi utzi behar da irlandarrok, hegokoak eta iparrekokoak, autodeterminazioarako eskubide guztia daukagula eta eskubide hori gauzatzeko aukera izan behar dugula.

**EGUNKARIA.**— Zer deritoxo alderdi unionistek erakutsi duten jokabideari? **ATWOOD.**— Unionistek, hau da herritar unionistek, alderdi unionista nagusietako buruzagiek baino

mentalitate eta ikusmira irekiagoa dute bake prozesuari dagokionez. Bakeak aldaketa batzuk eskatzen dituela eta aldatuak ezortzua eta amore-emate batzuk egitea eskatzen duela onartzen dute. Alderdi lealistentak. —Ulsterko Alderdi Progresista eta Ulsterko Alderdi Demokratikoa— ausart eta imaginazio handiz jokatzen ari dira bake prozesuan. James Molyneauxen eta Ian Paisleyren alderdiek, aldiz, ez dute komunitate nazionalistaren berdintasunerako eskubidea aintzat hartzen eta hauxe da arazo nagusia. Alderdi politiko unionista nagusienek ez dute aintzat hartu nahi Ipar Irlandako komunitate nazionalistak Hego Irlandarekin harremanak eta espazio politiko, ekonomiko eta kultural komunak partitzeko nahia eta eskubidea duela.

**EGUNKARIA.**— Nola uste du SDLPk lor daitekeela behinbetiko adostasuna bi komunitateen artean?

**ATWOOD.**— SDLP da autodeterminazio erreferendumaren bidea proposatu zuen lehena. Bi erreferendum egin behar lirateke, bata iparrean eta bestea hegoan. Bi kontsultak ere egun berean eta galdera berbera eginez. Erreferenduma da akordioa eskuratzeko bide bakarra.

**EGUNKARIA.**— Nazionalistek diote gehiengoari, nagusitasunari eta botereari eusteko unionistek era artifizialean zaitu zutela Irlanda 1921ean. Nola zuzen daiteke akats historiko hori zure alderdiaren ustez?

**ATWOOD.**— Erabat ados nago azalduko ikuspegi horrekin, baina Ipar Irlandan ia milioi bat lagunek unionistatzat dute beren burua eta horixe da kontuan hartu behar den errealtatea gure egun. Jendetza hori ezin zaio eragin berea azken 25 urteotan Ipar Irlandako komunitate katolikoari pasarazi dioten sufrimendua.

## Mitchel McLaughlin

(SINN FEIN)

# «Britainiarrek interesak dituzte Irlandan eta horregatik ez doaz»

● Alderdian bake prozesua bultzatu duen ideologotzat jotzen dute Mitchel McLaughlin Sinn Feineko Mahai Nazionaleko lehendakaria. Britainiarrekin izandako negoziatioetan parte hartu du alderdi errepublikarraren erreferentzi puntu garrantzisa bilakatu den McLaughlinek.

**EGUNKARIA.**— Noiz arte egongo da Sinn Fein negoziazio mahaian eseri ahal izateko Londresen baimenaren zain?

**MCLAUGHLIN.**— Sinn Feinek behar den beste itxarongo du. Elkarriketak deitzeko erabakia alderdi guztien artean hartuko den erabakia da, baita IRAren erabakia ere. Onartezina da elkarriketaren posibilitatea aurrikusten ez duen egoera. Gobernu britainiarren borondateaz fidatzen ez zirenei arrazoa eman beharke zaie gauzek horrela segitzez badute.

**EGUNKARIA.**— Mugimendu errepublikarreko oinarrien artean haserrea nagusitzen ari da eta IRAren berriro armak har ditzala eskatzen dute batzuek.

**MCLAUGHLIN.**— Ez dut ukatuko gure oinarriak kezkatuta daudela aurrerapausorik ez dutelako ikusten. Baina proiektu eta estrategia amankomunak lotzen gaitu guztiok eta inork ez du gu zatikatzea lortuko. Gure jendeak ikuspuntu eta analisi politiko sakona eta osotua du, eta konfiantza osoa du lidergoan.

**EGUNKARIA.**— Gobernu britainiarra Ipar Irlanda uzteko prest egongo litzatekeela uste al duzu?



Mitchel McLaughlin.

REUTER

**MCLAUGHLIN.**— Interes estrategiko, militar eta ekonomikorik ez dutela adierazi duten arren, oraindik interes politikoak dituzte Irlandan eta horregatik seztaluzte dute herri honetan.

**EGUNKARIA.**— Goiz edo berandu Sinn Feinek elkarriketetan parte hartzeko baimena jasoko duela uste al duzu?

**MCLAUGHLIN.**— Ezkorra izateko arrazoi ugari dagoen arren, Gobernu britainiarren jarrera oztapatzailea gaingiditu ahal izango dugula uste dut.

**EGUNKARIA.**— Alderdi unionista ofizialek Gobernu britainiarri egin dioten presioa al da Sinn Fein elkarriketa mahaira

ez deitzeko arrazoa?

**MCLAUGHLIN.**— Alderdi unionisten eragina Gobernu britainiarrean hokea haiei eman nahi duen neurrikoa da. Azken 25 urteotan argi ukusi da britainiarrek nahi izan dutenean ez dituztela unionistak kontutan hartu. Beraz, alderdi unionista nagusiek ez dute batere eraginik Gobernu britainiarrean. Ondorioz, Gobernu britainiarrek alderdi guztien arteko elkarriketarik ez badu deitzen, borondatek ez duelako da.

**EGUNKARIA.**— Zein hitz erabili zituen Sinn Feinek Gobernu britainiarrekin, IRAk su-etena deitu aurretik izan zituen elkarriketetan?

**MCLAUGHLIN.**— Reynoldsek, Hume eta Adamsek berak maiz errepikatu dute iazko abuztuaren aurreko bileretan ez zela inoiz dekomisio hitza ere erabili ezteko sujertu ere egin. Britainiarrek pentsatzen zuten IRAk behinbetiko su-etena deituko zuela eta hori hala ez zela konturatu zirenean dekomisioaren aitzakia asmatu zuten. Biolentzia amaitzea zen hasierako elkarriketetan jarri zen aurrerabaldintza bakarra.

**EGUNKARIA.**— Negoziazio mahaira deitzen bazaituzte zein egitura politiko proposatuko duzue edo zein izango dira zure proposamenak? **MCLAUGHLIN.**— Gure proposamen politikoan Irlanda batua da, eta autodeterminazio eskubidea gure printzipioa. Beraz, Irlanda osoko populazioaren autodeterminazio eskubidea azpimarratuko dugu. Gobernu britainiarrek Irlanda uzteko prozedura eta epeak negoziatuko dituela jakinarazi behar diegu herri honetako protestante unionistek. Irlandako unionistak Irlanda batuan integratzeko eta errespetatuak izateko modua aurkitu behar dugu denon artean adostutako akordioaren bidez.

## Billy Hutchinson

(PUP)



Billy Hutchinson. H. UNZUETA

● Billy Hutchinsonek ordezkatzan duen Alderdi Unionista Progresista (PUP) Ulster Volunteer Force (UVF) talde armatu lealisten ahots politikoa da. Hutchinsonek konpromezu gehiago eskatzen dio Sinn Feini bake prozesuarekiko, baina era berean kritika gogorak egiten dizkie Gobernu britainiarri eta alderdi unionista ofizialei.

**EGUNKARIA.**— Zein da zure ikuspegi bake prozesuari buruz?

**BILLY HUTCHINSON.**— Bake prozesuarekin konprometitu diren alderdi politiko bakarrak alderdi lealistentak (gurea eta UDP) eta Sinn Fein dira. Gure partaideetza ukatzen duen prozesu politiko batean sartuta daude gainerako alderdiak. Unionista konstituzionalistak gure beldur dira, gu baikara haientzat alderdirik arriskutsuenak. Programa politiko zehatzak eskaintzen dugu guk; Paisleyren eta Molyneauxen alderdiek, ez dute azken 75 urte-

# «Unionista ofizialak gure beldur dira»

dearen egoera sozioekonomikoa hobetu egingo litzateke. Eta, finenean, komunitateetan lanean ari behar dugu. Gatazkaren iransformazioan sinesten dugu, eta arazoan konponbidea debate politikoaren bitartez etorriko dela.

**EGUNKARIA.**— Zein baldintzat hautsiko lukete su-etena paramilitar lealistent?

**HUTCHINSON.**— Errepublikarrek hautsiz gero bakarrik hautsiko lukete su-etena lealistent. Paramilitarrek esana dute su-etena ez dutela lehenengo hautsiko, eta errepublikarrek horixe bera esatea behar dugu, hori gertatuz gero su-etena iraunkorra dela esan nahiko luke eta.

**EGUNKARIA.**— Nork eman behar du hurrengo urratsa bake prozesuan aurrera egingeko?

**HUTCHINSON.**— Guk hamahiru elkarriketa esploratoriotan har-

tu dugu parte, eta Sinn Feinek hirutan baino ez. Sinn Feinek benetan parte hartu nahi badu, segi dezala elkarriketa hauetan parte hartzen. Bestalde, Gobernu britainiarrek jarraia aldatu behar du armen dekomisioaren gain.

**EGUNKARIA.**— Zure alderdiak onartzen al du, aurrerabaldintza gisa, armak entregatzea?

**HUTCHINSON.**— Guk ez dugu onartu aurrerabaldintzarik. Guk esana diogu Londresi dekomisioari buruz hitz egiteko prest gaudela, baina baita ere IRA hor dagoen bitartean ezin dugula armarik entregatu. Eta Gobernuak onartu egin du, eta guk elkarriketaren esploratorioetan parte hartzen segitu dugu. Sinn Feinek, ez du horrelakorik egin. Londresi kondizioak jarri nahi dizkie. Sinn Fein helburu politikoak lortu nahian dabil hasieratik.



# BAKE PROZESUAREN HAMAİKAKOIA




**IAN PAISLEY**  
(DUP alderdiko liderra)

Atzelari gogorrena eta bateranoena. Gaur egungo emaitza inolaz ere ez aldatzea du helburua eta hortzak estuta ari da, jokatzin baino, bestiek joka ez dezaten salatzen. Jokatzeko modua antzinakoa du, eta ez dirudi kirolak izan dituen akaketa larriak erabiltzeko gauza denik. Taldoko inorenkin ez da konpontzen gainera. Atezinak eta erdiko bi alderdiak traidonatu egin dituela dio, Molyneux defentsa lanetan behar bezain gogorra ez dela usle du. Gintan atzeratamark partidu honetan parte hartzeko eskubiderik ez duela dio, eta Reynolds eta Bruton, Irlandariek izanagatik, ezin izan direla eta taldetik bidali nahi ditu. Aurretari biak porrotatzen dituela esaten du jendarmean, baina Hutchinsonen garai bateko enesak ezkutuak izalatu egin zituela dio.



**JOHN MAJOR**  
(Erresuma Batuko lehen ministroa)

Taldoko atzeratamark bat izanagatik, taldea berak nahi duen erimotuan muglanetzea gustatzen zio. Denak balo eske artzen zaitziko, lau erdiariek eta Adams aurrelaria bezelak ere. Aurrelarien erasoak egundoko beldura die Majorrek, eta duela urtebete arte, erasoak eten ziren arte, baloia atzeratze baino ez ziren eman. Erasoak gelditu, ordea, baloia gehiago banatzeko borondatea erakutsi zuen Majorrek: jokaldi ausartak egin zituen Albert Reynoldsekin aurrea eta John Brutonekin pero. Baina mugimendu txarrentzat haren ondorengo bedurua—balota trion ez emateko asmoa duela orain.



**JAMES MOLYNEUX**  
(UUP alderdiko liderra)

Ian Paisley bezain bateranoa, baina hura bezain egoskorra eta gogorra ez. Hegal berean jokatzin zuten garai batean baina, helburutan ados egonagatik joko esleian konforme jarri ezinik, hegala desberdinetan jarri zituen ofononatzaleak.

Partiduan sartu ez sartu erabaki ezinik dabil. Atezinarenkin oso ondo konpordu da orain gubi arte. Baina orain, Majorrek jokaldi batzuk erdiarierkin egin dituela eta, atezinarenkin ez dela lid dio Molyneuxok. Dena den, orain arte bazter batean askorik jokatu gabe egon bada ere, azken emaitza erabakitzeko orduan zerekin handia izango du atzelari honek. (Ipar Irlandan beste inork baino jarraitzaile gehiago du eta.)

**PATRICK MAYHEW**

(Ipar Irlandako Estatu Idazkaria) Markatzaile larriak Anceametik eginen dizko, eta bera libero ari da jokatzin. Anceametik ezin izan zuten jokatzin. Majorrengana behintzat ez heltzea da bere lana. Ondu ari da betetzen agindu dioten lana, baina inaziatiba gutxi erakutsi du joko sortzeko orduan. Majorren mende erabat, hark atezin postua geldituko balu, Mayhew ere hamaikakotik kanpo geldituko litzateke. Berarengatik eta etorkizuneko garrantzi berezia du partidu honek amaierak bakesua eta emaitza ona izatea.



**BILL CLINTON**

(Estatu Batuetako lehendakaria) Taldoko beste atzeratamark arbasoak Irlandariek dituen arren, jokaldi gubiarri, baina funtsazkoelari, parte hartzeko abiltzia du. Joan den malatzean le jokalaritza guztiak Estatu Batuetara eramane zituen taldetik bertatik protatzeko eta, aspaldian elkarri hortzak erakutsi baino egin ez zituen. Mayhewk eta Adamsen alkarri bostekoa kirotasunez ematea lortu zuen. Hurrengo jokaldi, sonatu azaroren bukaeran egingo duela iragarri du, Irlandara bertara joanda. Clinton Irlandan dela, Major atezinak baloia eman beste erremediorik ez duela izango espero duela erdiariek eta aurrelariak.



**JOHN BRUTON**

(Hego Irlandako lehen ministroa) Partidua hasi zagoela zelairatu zion, Reynolds erdiarierkin lesto izan zuela eta Erdiaria izanagatik, atze samarrean jokatzin. Major, Mayhew eta Anceamengandik oso hurbil. Baloi asko heltzen zaitziko, leku estrategikoz jokatzin du eta, baina jokalaritza erimotua emateko. Reynolds, postu honetan jokatzin zuzenean, baloia azkarrengatik mugitzen zuen. Hala eta guztiz ere, partiduko jokaldi garrantzitsuenak bere e! Majorren sinadurak darama.



**MICHAEL ANCRAM**

(Ipar Irlandako ministroa) Liberoak atezinaren erimotua betetzen dituen bezalaxe, atzelari markatzaileak liberoaren erimotua betetzen ditu, zintzo-zintzo. Markatzaile asko egin diti, baina sonatuena Martin Mc Guinness aurrelari errepublikarri erimotua izan da. Dagoeneko hiru aldiz aurrez aurre izan dira Ancram eta Mc Guinness, baina azkenaldian ez dute alkarri izan. Ancramen kontra jokatu duen baktitzean baloia ez dela inoiztik ageri salatu du Mc Guinnessok, eta bertan ez den bitartean gehiago ez duela Ancramen aurrelari jokatu.

**JOHN HUME**

(SDLPko liderra) Baidar ibura duen arren, erdiarri abile eta auzerria da Hume nazionalista. Denak defentsa estrategiaekin kezkatuta zebuden garailan, inork ondoren nahi ez zuen Adamsenkin batera jokatzin hasiea erabaki zuten. Asko arrikatu zuten jokaldi hartan, eta kritika gogorak jaso ero bal, baina emaitza orain eman dizko. Sekula baino konfiantza handiagoa du aurrelari errepublikararekin, erdiarri guztiaren oso ondo konpontzen da, eta sinesgarritasuna du erdiko atzelarien artean.

**ALBERT REYNOLDS**  
(Hego Irlandako lehen ministroa)

Partidua hasi baino lehen joko arauak finkatzen izugarritxo lana egin zuen, Adamsenkin eta Humearekin elkarrean. Partidu hasieran ere mugimendu politik eta azkarak egin zituen. Majorrekin jokaldi ikusgarria egin zuen Downing Streeten. Partidu honekin zentzuzko ez zuen lesio larria zela-



eta erabiaratu eta Brutonek ordezkatu zuten zelai erdiko lekuri estrategia koenean. Partidura itzultzeko gauza izan hala ere, nahiz eta lehengo postura ez. Orain aurrerago jokatzin du, inor markatu beharrik gabe, aurrelariengandik oso hurbil. Majorrek joko arauak hautsi egin dituela salatu du.



**GERRY ADAMS**

(Sinn Féineko liderra) Humerekin aurrea, eta Reynoldsekin pero, islipedan egin zituen partiduko lehen jokaldiak. Eraso egiteko era aldatu gero baloia berari ere helduko zitziola agindu zion. Majorrek eta arrikatzea erabaki zuen. Baina urtebete eman du baloia eske, eta alizak baloia ez diti entzun. Dena den, baloirik gabe ere oso ondo jokatzin dakien aurrelaria da, eta ez da sekula jokoz kanpo geratzen. Clintonek Ebo Zuhar hartu zuen, Bruton eta Hume erdiarierkin konbinaketa onak egin bitu, eta Mayhew eta Ancram atzelariak jokaldi ez baktizagarriak egin diti pribatutan. Majorrek ez dio, ordea, baloirik eman. Clinton Irlandara joan arte behintzat lharongo du, baina orduan ere baloirik jasotzen ez bada, eraso egiteko esleio zaharrera itzuliko eta den susmoa dago.



**BILLY HUTCHINSON**  
(Lider leialista)

Legez kanpoko jokaldiak egiteagatik espetxean 16 urte egin ondoren, bost urte daramatza zelaietan Hutchinson leialista. Adamsen golak sartzeko era aldatu ondoren, gauza bora egitea erabaki zuen berak. Paisleyren eta Molyneuxen emaitza bera nahi du partiduen bukaeran, baina jokatzeko modua zeharo desberdina du. Partiduan sartuta dago eta ezinezkerik jokatzeko presat dago. Oraindik kartzelan dituen la zarpelaren larriak hamaikakotara ekartzeko bide bakarra partidu ona jokatzin dela badaki. Oso jarraitzaile gubidituela da bere arazo nagusia.

